



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 23a

74. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-24/PRO-00004. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00043. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirol egokitua dela eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

—11-24/MOC-00046. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes adierazten baitie artista sortzaile nafarrei haien sormen-ahalmena askatasunez balia dezaten. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

—11-24/MOC-00066. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Txikizkako merkataritza antolatzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, egokitutak jotzen dituen premia biziko produktuetan banatzaile handiei merkaturatze-marjinak ezar diezazkien, hasierako ekoizleei eta amaierako kontsumitzaileei mesede egiteko asmoz. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-24/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gazako zerrendan egiten ari diren genozidioa salatzen baitu eta Israeli exijitzen baitio Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa eta NBERen ebazpenak bete ditzan. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00071. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aitor dezan tauromakia afizio legitimo bat dela, gure erkidegoan sustrai historiko eta sozial sakonak dituen, bereziki Nafarroako herri askotako jaietan. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak onetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu gure erkidegoan prentsa-askatasuna babesteko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu ez dezan kazetarien lana eragotz. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiteke dauden azpiegiturak bultzatzeari dagokionez hartutako konpromisoak bete ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babes ematen baitio tauromakiari, eta errefusatu egiten baititu Espainiako Gobernuak tauromakiari egindako erasoak. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nazioko Gobernuak premiatzen baita segurtasun pribatuari buruzko araudia gaurkotu eta egokitu dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-24/PES-00093. Galdera, alokairuko etxebizitza-poltsa programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—11-24/PES-00094. Galdera, zaharren eguneko zentron itxaron-zerrenda gaurkotuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—11-24/PES-00095. Galdera, Erriberako herrietan delituen igoera prebenitze aldera Barneko, Funtzio Publiko-ko eta Justiziako Departamentuak egiten dituen jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—11-24/PES-00096. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko 32 etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—11-24/PES-00097. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitza ez esleitzeko eskabidean 2023. urteari dagokion laukia gaitu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—11-24/PES-00098. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitza ez esleipena baliogabetu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

—11-24/PES-00099. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean egindako akatsaz noiz eta nola jabetu ziren jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako proposatutako kide bat izendatzea (19. or.).

—11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako proposatutako kide bat izendatzea (19. or.).

—11-24/ELC-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako proposatutako kide bat izendatzea (19. or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-24/PRO-00004. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Administra-  
zioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena ezetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/MOC-00043. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutu dezan**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutu dezan. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kirol egokitua dela-eta Nafarro-

an dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutzea bultzatzen dezan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren bitartez, desgaitasunen bat duen edozein kirolarik kirola egin ahal izateko balioko duena”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-24/MOC-00046. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie artista sortzaile nafarrei haien sormen-ahalmena askatasunez balia dezaten**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie artista sortzaile nafarrei haien sormen-ahalmena askatasunez balia dezaten. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die artista sortzaile nafarrei haien sormen-ahalmena askatasunez balia dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak sormen-askatasuna aldeztu du, Konstituzioaren 20. artikuluan jasotako konstituzio-balioa den aldetik.

3. Nafarroako Parlamentuak artearen, artisten edo haien lanaren aurkako zentsura-jarrerak arbuatzen ditu.

4. Nafarroako Parlamentuak sormen-askatasunarekiko eta zentsuraren aurkako konpromiso argia berresten du eta, ondorioz, ordezkari politikoek kultura eta artean esku hartzea arbuatzen du”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-24/MOC-00066. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Txikizkako merkataritza antolatzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, egokitzen dituen premia biziko produktuetan banatzaile handiei merkaturatze-marjinak ezar diezazkien, hasierako ekoizleei eta amaierako kontsumitzaileei mesede egiteko asmoz**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Txikizkako merkataritza antolatzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, egokitzen dituen premia biziko produktuetan banatzaile handiei merkaturatze-marjinak ezar diezazkien, hasierako ekoizleei eta amaierako kontsumitzaileei mesede egiteko asmoz. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Txikizkako merkataritza antolatzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, egokitzen dituen premia biziko produktuetan banatzaile handiei merkaturatze-marjinak ezar

diezazkien, hasierako ekoizleei eta amaierako kontsumitzaileei mesede egiteko asmoz

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu nor bere eskumen-eremuan areagotu ditzan Elikakatearen Legea ez betetzeari buruzko ikuskapenak, bereziki zenbait banaketa-enpresaren irabazi-marjinak direla-eta egindako abusuei dagokienez.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du erraztu dezan elikakatean sortzen diren plusbalioak modu ekitatiboagoan bana daitezten nekazaritzako elikagaien ekoizleen, prestatzaileen, banatzaileen eta merkaturatzaileen artean, halako moduan non elikakateko inongo katebegirik ez baita behartuta egonen dirua irabazi gabe edo dirua galduz saltzera”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gazako zerrendan egiten ari diren genozidioa salatzen baitu eta Israeli exijitzen baitio Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta NBEren ebazpenak bete ditzan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gazako zerrendan egiten ari diren genozidioa salatzen baitu eta Israeli exijitzen baitio Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta NBEren ebazpenak bete ditzan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatzen du, eta elkartasuna adierazten dio palestinar herriari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta NBEren ebazpenak bete ditzan exijitzen dio Israeli.

3. Nafarroako Parlamentuak Israel premiatzen du korridore humanitarioak irekitzea onar dezan eta berehalako su-eten iraunkorra dekretu dezan Gazan eta Zisjordanian.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuaren premiatzen du Palestina eskubide osoko estatu gisa aitortu dezan eta palestinar herriari ematen zaion laguntza humanitarioa handitu dezan.

5. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten dio Nazio Batuen Erakundearen UNRWA Agentziari, ezinbesteko lana egiten duela aitortzen du, eta haren funtzionario erailengatiko dolumina adierazten du.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari, Estatuko Gobernuari eta gainerako

nazioarteko eragileei eskatzen die mantentzaten Palestinarekiko jadaneko lankidetzaren proiektuak, eta babes ditzaten alor horretan lan egiten duten entitateak, hala nola UNRWA.

7. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuaren eta nazioartea premiatzen ditu areagotu ditzaten gerra-egoera baretzera eta bake iraunkorra lortzera bideratutako urrats diplomatikoei bultzada emateko ahaleginak.

8. Nafarroako Parlamentuak aldeko jarrera adierazten dio “Yala Nafarroa Palestinarekin” elkarteari, eta aldeztu egiten du giza eskubideen eta Palestinan bake justu eta iraunkorra lortzearen alde egiten ari den lana.

9. Nafarroako Parlamentuak aldeko jarrera adierazten dio “Askatasunaren Flotilla”ri, eta Israel premiatzen du ez dezan eragotz laguntza humanitarioa Gazako zerrendako herritarrengana helaraztea.

10. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten dio palestinar herriarekiko elkartasuna eta babesa adierazteko ekimenak egiten ari den ikasle-mugimenduari.

11. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Hamas talde terroristak Israelgo Estatuaren aurka egindako eraso terroristak, ehunka hildako eta zauritu eragin dituztenak, eta exijitu egiten du bahituak berehala askatzea”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00071. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aitor dezan tauromakia afizio legitimo bat dela, gure erkidegoan sustrai historiko eta sozial sakonak dituena, bereziki Nafarroako herri askotako jaietan**

### *KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak 2024ko maiatzaren 17an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aitor dezan tauromakia afizio legitimo bat dela, gure erkidegoan sustrai historiko eta sozial sakonak dituena, bereziki Nafarroako herri askotako jaietan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aitor dezan tauromakia afizio legitimo bat dela, gure erkidegoan sustrai historiko eta sozial sakonak dituena, bereziki Nafarroako herri askotako jaietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako adierazpide kultural bereki guztiak aldeztu eta susta ditzan, besteak beste tauromakia, sormen artistikorako

askatasuna eta kulturarako eskubidea ez baitira botere politikoaren hobespenen arabera.

3. Nafarroako Parlamentuak oniritzia ematen dio Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko Departamentuak eta hainbat udalek emandako erantzunari, COVID-19aren krisiaren une larri hartan behi suharren ganadutegiaren sektoreari babesa emateagatik. Erantzun horri esker ganadutegiei eutsi ahal izan zitzaizen eta ehunka animalia hiltzea ekidin zen.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako zezenaren munduarekin eta, bereziki, abeltzaintzakoarekin batera lanean aritu dadin, gizarteak eskatzen duen beharrezko berrikuntzari zabalik, Nafarroako landa-eremu askori balio sozioekonomiko ukaezineko ekarpenak egiten jarraitzeko aukera izan dezaten”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu gure erkidegoan prentsa-askatasuna babesteko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu ez dezan kazetarien lana eragotz**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, ezetsi du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu gure erkidegoan prentsa-askatasuna babesteko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu ez

dezan kazetarien lana eragotz. Mozioa 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-24/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita egiteke dauden azpiegiturak bultzatzeari dagokionez hartu- tako konpromisoak bete ditzan**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita egiteke dauden azpiegiturak bultzatzeari dagokionez

hartutako konpromisoak bete ditzan. Mozioa 2024ko maiatzaren 14ko 69. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-24/MOC-00069. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio tauromakiari, eta errefusatu egiten baititu Espai- niako Gobernuak tauromakiari egindako erasoak**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio tauromakiari, eta errefusatu egiten baititu Espainiako

Gobernuak tauromakiari egindako erasoak. Mozioa 2024ko maiatzaren 14ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-24/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nazioko Gobernua premia-tzen baita segurtasun pribatuari buruzko araudia gaurkotu eta egokitu dezan**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, ezetsi du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nazioko Gobernua premia-tzen baita segurtasun pribatuari buruzko

araudia gaurkotu eta egokitu dezan. Mozioa 2024ko maiatzaren 14ko 69. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00093. Galdera, alokairuko etxebizitza-poltsa programari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak alokairuko etxebizitza-poltsa programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Aramendia Zabaleta jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00093). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Alokairuen Poltsa Nafarroako Gobernuak sustatutako eta Nasuvinsa sozietate publikoak kudeatutako programa da. Honako hauek dira aipatutako programaren dibulgazio kanpainen zerrenda, horien edukiaren deskribapena eta garapena:

2016ko maiatzaren 25a. Agerraldi informatiboa komunikabideen aurrean Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren berri emateko, Alokairuen Poltsa foru komunitateko lurralde eremu osora zabaltzeko, une horretara arte Iruña eta Iruñerrira eta Tuterara mugatzen baitzen.

2017ko urria. Alokairu publikoari buruzkoa sei iragarkiko zabalkunde kanpaina, lelo orokorra izanda "Etxeak aldatzen ditugu..., gauzak aldatzen ditugu / Cambiamos las casas..., cambiamos las cosas".

Bideoak zuzeneko elkarrizketako formatuan editatu ziren, eta Nasuvinsako teknikariek nahiz Alokairuen Poltsako errentariek eta eskaintza

publikoko beste programa batzuetakoek parte hartu zuten.

Irratiz, zineman, telebistan eta sare sozialetan (Twitter eta Facebook) jarri ziren, eta azken balantzean 40.000 ikustaldi eta 90.000 pertsonako irismena erregistratu ziren,

Kanpainak xede zuen erreferentziazko esparruan Nasuvinsak nahiz alokairu sozialeko zerbitzu publikoak egindako lana ezagutzera ematea.

2018ko apirila. Mezu elektronikoak bidali zitzaizkien toki erakundeei, Alokairuen Poltsak norberak erabiltzen ez duen etxebizitza partikularra lagatzeko zituen abantailen informazioarekin, eta adjudikaziodun izan nahiz zutenek Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izen emanda egotearen garrantziari buruz ere bai.

2018ko irailaren 18a. Foru Administrazioaren plantillari eta sozietate publikoetakoari mezu elektronikoak bidaltzeko kanpaina, honako lelo honekin: "Infórmate y dale vida a tu vivienda vacía!

Kanpaina horren helburua zen Alokairuen Poltsaren abantailen berri ematea erabilerarik gabeko etxebizitza baten jabe diren partikularren mesedetan, eta, horrekin batera, etxebizitza-parkearen zati horren lagapen kopurua handitzea, Nasuvinsak kudea zezan errentamendu babestuko erregimenean.

2020ko abenduaren 17a. Nafarroako Gobernuak prentsaurreko batean jakinarazi zuen berritu egin zirela etxebizitza partikularrak Alokairu Publiko Poltsari lagatzeko dirulaguntzak (225.000 euro), berme osoko errentamendua errazteko eta erabiltzen ez ziren etxebizitzak mobilizatzeko.

2021eko martxoaren 2a. Nasuvinsako talde teknikoak Sakanako alkate guztiei irekitako lan saio bat antolatu zuen, Alokairuen Poltsak erabiltzen ez dagoen etxebizitza lagatzeko interesa duten jabeek eskaintzen dizkien berme eta onuren

berri emateko, bai eta programa publiko horren funtzionamenduaren eta baldintzen berri emateko ere. Era berean, Nasuvinsak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuaren ezaugarriak, izen emateko prozesua eta baldintzen balorazioa aztertu ziren.

Informazio saioa Etxarri Aranazko kultur aretoan egin zen, eta Sakanako udal hauek bertaratu ziren:

- Lakuntza
- Arbizu
- Uharte
- Etxarri Aranatz
- Urdain
- Arakil
- Irurtzun

2021eko maiatza. Alokairuen Poltsari buruzko triptiko informatiboaren testuak eta diseinu grafikoa berriro ziren. Bertsio bakarra, elebiduna, gaztelaniaz eta euskaraz.

2021eko abenduaren 14a. Nasuvinsak kudeatzen duen Alokairuen Poltsari erabiltzen ez den etxebizitza emateko baldintzak hobetzeko eta errazteko Nafarroako Gobernuak onartutako abantaila eta pizgarri berriak prentsaurrekoan aurkeztu ziren. Horiei beste pizgarri batzuk gehitu behar zaizkie, hala nola zerga abantailak eta dirulaguntzak, 2016az geroztik sartu direnak eta programaren etengabeko hazkundea ahalbidetu dutenak.

2021eko abendua. Nasuvinsak publizitate kanpaina bat egin zuen hainbat informazio euskarritan iragarkiak jartzeko, hala nola prentsa idatzian eta digitalean, irradian, telebistan eta sare sozialetan. Testuak gaztelaniaz eta euskaraz.

2023ko martxoaren 17a. Nasuvinsaren Alokairuaren Arloak zirkular informatibo bat bidali zien (euskaraz eta gaztelaniaz) une horretan Landa Birgaikuntzako Planaren bigarren faseko hitzarmen bidez sartutako udal guztiei. Nafarroako Gobernuak sustatzen zuen hori, tokiko eremuan alokairu babestuko eskaintza publikoa zabaltzeko, alde aurretik aipatutako sozietate publikoak birgaitutako udal eraikinak sartuta.

Hona hemen toki erakundeen zerrenda:

- Erro
- Gares
- Izaba
- Orbaizeta

- Otsagabia
- Espartza Zaraitzu.
- Deikaztelu
- Erronkari
- Ezkaroze
- Gorza
- Urzainki

Aurreikusitako ekintzen artean honako hauek zeuden: udal inkestak egitea, udalerrri bakoitzeko alokairuko etxebizitzaren eskaria ezagutzeko; Nasuvinsak lortutako datuen azterketa eta analisi estatistikoa eta udal bakoitzaren lankidetzak, bizilagunak Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Zentsuan izena ematera animatzeko.

2023ko azaroaren 8a. Nafarroako Gobernuak prentsako agerraldian jakinarazi zuenez, % 6 igo zen beren etxebizitza Nasuvinsak kudeatutako Alokairuen Poltsari lagatzen dioten jabeei ordaindu beharreko prezioa, egiaztatu baitzen etxebizitza babestuen eskaintzak ez zuela guztiz asebetetzen eskaria, eta etxebizitza eskuragarrien parkea handitzeko helburuarekin.

Horrela, Nafarroak alokairu aseguratuko bitartekaritza programa honen baldintzak hobetu zituen. Programa hori erreferentea da estatu mailan, eta gaur egun 936 etxebizitza ditu.

2023ko apirila / 2024ko otsaila. Bilera presentzialak egin dira hainbat herritan, udalekin lankidetzan, herritarrei Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Zentsuaren eta Alokairuen Poltsaren programaren funtzionamenduaren berri emateko. Bilera informatibo horiek herri hauetan egin ziren:

- Gares (2023/04/20)
- Legaria (2023/06/30)
- Gesalatz (2023/09/05)
- Los Arcos (2023/12/19)
- Berriobeiti (2024/02/09)

Toki erakundeekin izenpetutako hitzarmenak.

Orain arte, 25 lankidetzak hitzarmen sinatu dira guztira beste hainbeste udalekin, Alokairuen Poltsa sustatzeko.

Esparru hitzarmen horren bidez, toki erakundeek konpromiso hauek hartzen dituzte:

– Alokairuen Poltsaren programa eta, zehazki, haren onurak, betekizunak eta aukerak zabaltzea eta bizilagunei horien berri ematea, egokitzen dituzten zabalkunde- eta sustapen-ekintzak gauzatuz.

Nasuvinsak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du udaletako langileei indarreko araudiari buruzko prestakuntza emateko alde zuzenak, eskatzen diren dokumentazioa, liburuxkak eta informazio euskarriak emanez.

Udalek honako hau ere adosten dute:

– Udalerriko alokairuko etxebizitzaren eskaria aztertzea, eta eskari hori etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsuan benetan izena ematera bideratzea, auzokideen etxebizitza premiei buruzko informazio ahalik eta zehatzena izateko.

– Etxebizitza hutsak detektatzeko eta identifikatzeko neurriak gauzatzeko modua aztertzea, jabeen etxebizitza horiek modu eraginkorrean okupatzeko beste aukera batzuk proposatu ahal izateko.

– Kudeaketa presentziala eta dokumentala erraztea, bai etxebizitzak eskaini nahi dituzten jabeen, bai maizterrei.

Hona hemen orain arte Nasuvinsarekin Alokairuen Poltsarako lankidetzaren hitzarmen bat sinatu duten udalen zerrenda eta haren data:

	UDALA	SINATZEKO DATA HITZARMENA
1	OIBAR	2017/05/26
2	ALTSASU	2021/04/20
3	ANTSOAIN	2017/03/13
4	AGOITZ	2018/05/22
5	BARAÑAIN	2017/01/27
6	BAZTAN	2016/12/07
7	BERA	2017/04/28
8	BERIAIN	2017/06/30
9	BERRIOZAR	2017/03/31
10	BURGI	2017/12/14
11	BURLATA	2017/04/03
12	ZARRAKAZTELU	2018/04/27
13	LIZARRA	2017/06/21
14	GOIZUETA	2018/04/27
15	LEITZA	2018/03/23
16	LEKUNBERRI	2018/01/26
17	LESAKA	2021/02/17
18	MURILLO EL FRUTO	2017/06/26
19	IRUÑA	2018/06/19
20	GARES	2021/05/18
21	ZANGOZA	2017/02/20
22	TAFALLA	2018/03/26
23	TUTERA	2017/01/23
24	VIANA	2018/03/28
25	ZIZUR NAGUSIA	2021/12/15

Toki erakundeei emandako tresnei dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira:

– Nasuvinsako Alokairu eta Erroldako talde teknikoaren informazio- eta aholkularitza-zerbitzu etengabea.

– Nasuvinsako komunikazio arloaren laguntzea, materialak askotariko formatuetan prestatzeko.

– Alokairuen Poltsari buruzko dibulgazio- eta informazio-materiala udalen esku jartzea.

– Aurrez aurreko prestakuntza-saioak, Alokairuen Poltsaren eta Etxebizitza Eskatzaileen Zen-

tsuaren programen ezaugarriak eta funtzionamendua zehatz-mehatz azaltzeko. Horretarako, Nasuvinsako Alokairuaren arloak berak egindako dibulgazio materiala eta PPT aurkezpenak erabiltzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-24/PES-00094. Galdera, zaharren eguneko zentroyen itxaron-zerrenda gaurkotuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak zaharren eguneko zentroyen itxaron-zerrenda gaurkotuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00094). Hona hemen galdera hori:

• Zein da zaharren eguneko zentroyen itxaron-zerrenda gaurkotua?

Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguo kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Une honetan 104 pertsona daude etxean eguneko arreta baliabide batean plaza izateko zain (nola eguneko zentroa hala eguneko egonaldia

egoitza batean). Horietatik 75ek beste zerbitzu nahi prestazio bat jasotzen dute.

Gizarte zerbitzuen barrutien arabera: 78 Iruña eta Iruñerrikoak dira (% 75), 8 Lizarrako barrutikoak, 8 ipar-mendebaldeko barrutikoak, 5 Tuterakoak, 3 Tafallakoak eta 3 ipar-ekialdekoak.

Jakina denez, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguo Departamentuak eguneko hamaika zentro berri sortu daitezela sustatu du Europako funtsen bidezko dirulaguntzen deialdi baten bitartez, 3,5 milioi euroko inbertsioa eginda, aukera emanen duena eguneko hamaika zentro abian jartzeko (batzuk jadanik inauguratu dira eta beste batzuk eraikitzen ari dira) eta 260 bat lanpostu berri sortzeko eguneko zentro publikoetan eta udal titulartasunekoetan. Halaber, Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrak 700.000 euroko partida bat jasotzen du toki erakundeei diruz laguntzeko eguneko zentro berriak eraikitzen eta daudenak eraberritzen, lanpostu berriak sortzeko ere bai.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguo kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **11-24/PES-00095. Galdera, Erriberako herrietan delituen igoera prebenitze aldera Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak egiten dituen jardueri buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Erriberako herrietan delituen igoera prebenitze aldera Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak egiten dituen jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00095) honako hau jakiteko: "Barne Departamentua zer ari da egiten Erriberako herrietan delituen igoera prebenitzeko?"

Hona hemen Nafarroako Gobernuo Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Foruzaingoaren bulegoetan, Tuterako (Nafarroa) CN-121C, P.K.3 helbidean, Tuterako Foruzain Etxeko buruak, 78. zenbaki profesionala duenak, Foruzaingoaren Burutzak Legebiltzarreko galderari erantzuteko egindako eskaerari erantzun hau eman dio.

"Ad supra" galderari erantzuteko, Foruzaingoaren Atenea datu basea kontsultatu da Tuterako Foruzain Etxearen jarduketa eremuko datuetan eta 2022an eta 2023an dauden datuei dagokionez, aurreko urteak ez baitira esanguratsuak, Covidaren epidemiak baldintzatzen baititu.

Lehenik eta behin, egindako galderari dagokionez, eta galdera zabala denez "delitu" kontzeptuari dagokionez, adierazi behar da funtsean delitu estrategikoen kontzeptuaren barruan daudenak hartu direla kontuan, segurtasunerako delitu garrantzitsuak eta jabetzaren aurkako beste delitu batzuk diren aldetik, bai eta bide-segurtasunaren aurkako delituak eta arau-hausteak ere, prebentzio- eta ikerketa-faseetan Tuterako Foruzain Etxean jardueraren zati handi bat biltzen baitute.

Alderdi bietan (herritarren segurtasuna eta bide-segurtasuna), Tuterako Foruzain Etxean proaktibotasunetik lan egiten da, eta ahaleginak egiten dira poliziaren presentzia indartzeko arau-hausteak eta delituak prebenitzeko eta saihesteko komenigarrienak diren leku eta uneetan.

Horretarako, urte osoan zehar lan egiten da, zerbitzu txandetan, beti prest egoteko, goizez, arratsaldez eta gauetz, eta ordu eta egun guztiak betetzen dira.

Horietan, lehentasunez eta berehala erantzuten zaie herritarren eskaera guztiei, batez ere 112-CMCK eskatutako errekerimenduen bidez eta tokiko agintariek, eragin taldeek eta kolektibo interesdunek HABren eta Foruzain Etxeko Burutzaren bidez egiten dituzten zuzeneko eskaeren bidez.

Zeregin horretan, gaur egun, polizia jarduera inteligentziaz bideratzen eta gidatzen duen eredu batean lan egiten da, Foruzaingoaren ereduaren printzipio zeharkako gisa.

Horretarako, herritarren segurtasunaren eremuan, astero bilerak egiten dira, Foruzain Etxeko Buruzagitza eta Herritarren Segurtasuneko, Polizia Judizialeko eta Informazioko unitate nagusi guztien partaidetzarekin. Bilera horietan, Nafarroako askotariko eremuetan egindako delituak aztertzen dira, eta, beharrezkoa izanez gero, jarduketak koordinatzeko eta Foruzaingoko beste dotazio batzuekin gailuak indartzeko ekintzak zehazten dira. Beharrezkoa izanez gero, Herritarren Segurtasunerako Dibisioko, Esku hartzeko Dibisioko, Txakurren Gidetako eta abarretako beste unitate batzuen laguntza izaten da.

Bide-segurtasunak etengabe koordinatzen ditu Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloko lan ildoak, eta berehala erantzuten die Erriberan sortzen diren premiei.

Tokiko eta Estatuko beste polizia kidego batzuekiko koordinazioari dagokionez, segurtasun batzorde eta koordinazio batzorde guztietan parte hartzen da, beharrezkoak direnean ekitaldi puntualei eta edozein motatako gorabehera aipagarri erantzuteko, baldin eta gorabehera horiek, beren izaeragatik, hala eskatzen badute eta segurtasun publikoaren edozein esparrutan eragiten badute.

Aipatu beharra dago, halaber, Udaltzaingoa duten herriekin gertutik lan egiten dela eta haiekin lankidetzan aritzen dela: Tuterako, Castejón, Corella eta Cintruénigo, bai eta aguazil zerbitzua nahiz antzekoren bat duten gainerako udalerriekin ere.

Horrelako zerbitzurik ez duten udalerrietan, zuzenean ematen zaie behar den arreta beren udaletako agintariek egindako eskaerei.

Udaltzaingoekin egindako lankidetzari dagokionez, Tuterako Udaltzaingoak eta Nafarroako Erriberako gainerako udaltzaingoek eta aguazilek atxilotutako gehienek zaintzak egiten direla aipatu behar da, bai eta atxilotuta horiei dagozkien eginbide guztien instrukzioa eta ikerketa egiten direla ere.

Salaketak jasotzeari eta herritarrei arreta emateari dagokionez, Erriberan delituengatik aurkeztu diren salaketa gehienak jasotzen dira, txosten gehigarrian jasotzen den bezala.

Horrez gainera, gaur egun herritarren salaketak eta eskaerak jasotzeko eta erantzuteko programa informatikoak daude, bai eta kexak eta informazioak bideratzeko sistema bat ere, herritar ororen eskura.

Biktimari arreta emateari dagokionez, lan guztia hura babestera dago bideratuta.

Nabarmentzekoa da genero indarkeriaren biktimak zaintzeko eta babesteko zerbitzu asko daudela. Herritarrei Arreta emateko Bulegoak kasu horien jarraipena egiten du, eta ezarritako neurriak babesteko eta betetzeko zaintza programatua ezartzen du. Zaintza hori, batez ere, Herritarren Segurtasuneko unitateek egiten dute, eta, behar izanez gero, Foruzaingoa unitate zentralak.

Polizia Judizialaren Taldearen ikerketa lanei dagokionez, komisariako HABetan salatutako delitu guztiak eta Foruzaingoko unitateek hasiera batean artatzen dituzten gai guztiak aztertu eta tratatzen dira, eta lehentasuna ematen zaie ebazteko ikerketa ekintzei, larritasun eta eragin sozial handiagoko delituetan.

Horretarako, Polizia Judizialeko eta Polizia Zientifikoko talde espezializatuek egiten dituzte ikerketak.

Adibide gisa hartzen ahal da 2023an droga trafikoa antolatutako krimenaren aurkako eragiketa garrantzitsuak egin zirela, horietako batzuk diru eta droga kopuru handia konfiskatuta eta zenbait atxiloturekin.

Txosten osagarrian jasotako datuen interpretazioari dagokionez, honako hau esan daiteke:

Oro har parlamentariak planteatutako galderari erreparatuta, ezin da esan, kategorikoki, Erriberan delituen gorakada esanguratsua egon denik; izan ere, nahiz eta datuek oro har 2023tik 2022ra bitarteko zifra apur bat handiagoa adierazten ahal duten, zifra horiek urriak dira, eta, gainera, ez dira delitu guztietan eta herri guztietan gertatzen; leku batzuetan apur bat gora egin du, eta beste leku batzuetan, Corella eta Cintruénigo kasu, balio berberetan mantendu da.

Bestalde, aurtengo lehenengo bi hilabeteen hasieran, delituen kopuruak beheranzko joera du oro har.

Adierazi behar da, datuetan islatutakoaren araber, Nafarroako Erriberan Foruzaingoa arduratzen dela Nafarroako Erriberan egindako delitu gehienez, eta delitu horiek argitzeko ratio esanguratsua mantentzen duela.

Horren harira, esan behar da Foruzaingoa Nafarroan dauden polizia agente guztien laurdena dela.

Era berean, Tuterako BPACa handitzeko konpromiso argia dago, hori baita delituen prebentzioan eta jazarpenean eragin zuzenena izaten ahal duena, eta hamahiru agente gehiago jarri dira; Agente horiek Foruzaingoa 2025eko urtarrilean sartzea aurreikusten da.

Bide-segurtasunari dagokionez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako Gobernuak sustatutako kanpaina guztietan hartzen da parte, eta jasotako datuen arabera, gidatzean alkoholari eta drogei lotutako arau-hausteengatik salatutako gertaerak ugartu egin dira, jokabide horiek prebenitzeko eta kontrolatzeko programatutako kontrolak areagotzearen ondorioz, bai eta jokabide horiek prebenitzeko arreta berezia jartzen duten zerbitzu arruntetan ere.

Nabarmentzekoa da, halaber, Foruzaingoa gaien portzentaje handia artatu duela eta horietako asko argitu dituela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 15ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Amparo López Antelo

## 11-24/PES-00096. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko 32 etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak Maristen orubeko babes ofizialeko 32 etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11--24/PES-00096). Hona hemen galdera horrek dioena:

– Zein da konponbidea eta zer prozedura baliatu behar da Maristen orubean babes ofizialeko 32 etxebizitzaren esleipena baliogabetu ondoren?

– Horrek atzerapenik ekarriko al du sustapenaren hartzaileei etxebizitzak ematean?

– Atzerapenik ekartzen baldin badu, noiz arte atzeratuko da etxebizitzaren entrega?

– Baliogabetutako esleipenak zergatik ez ziren aurrez kendu esleipen-hartzaileen behin-behineko edo behin betiko zerrendatik?

– Eskatzaileei 2023ari dagokion laukia betetzeko aukera eman zitzairen, eta gero esleipena baliogabetu zen, hain zuzen ere, lauki hori bete behar ez zelako. Zergatik gaitu zen, orduan, lauki hori?

– Babestutako etxebizitzaren beste sustapen bazuetan ere gertatzen ari al da gauza bera?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak etxebizitza babestu bat eskatu duten pertsona guztiei honako hau eskatzen die, hautatu duten sustapena gorabehera:

1. Bete ditzatela etxebizitza babestu bat eskuratzeko eskatzen diren legezko baldintzak, eta zehazki Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/20100 Foru Legearen 17. artikuluan ezarritakoak eta Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua arautzen duen martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuan garatutakoak (II. kapituluan —Etxebizitza babestuak eskuratzeko baldintzak—, 1. atalean —Eskuratzeko betekizun orokorrak—).

2. Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena ematean dagokion eskuratzeko baremoan puntuazioa eskuratzeko eskubidea ematen duten inguruabarrak (alegatu direnak) egiaztatzeko.

Maristen orubeko sustapenetan kontratua sinatzeko baimena ukatu zitzairen, administrazio errekurtsua jasotzen ahal duen eabazpen administratibo bidez, behin-behineko adjudikaziodun izan ziren 29 eskatzailei.

Behin-behineko adjudikaziodunei kontratua sinatzeko baimena ukatzeak ez du harremanik sustapeneko behin betiko adjudikaziodunei etxebizitzak entregatzeko atzerapenarekin. Sustapen horiek behin-behineko kalifikazioa eta lizentzia dituzte, eta, beraz, obrak sustatzaileak erabakitzen duenean hasten ahal dira.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak egindako behin-behineko adjudikazioak aztertzen ditu kasuan kasuko kontratuak sinatzeko baimena emate aldera, aipatu den 25/2011 Foru Dekretuan zehazten den unean. Ordura arte etxebizitzaren behin-behineko adjudikazioduntzat hartzen da.

Hori horrela, etxebizitza babestu bat eskuratzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko eta baremoan lortutako puntuazioa justifikatzeko dokumentazio guztia aztertzen da.

Kontratu bat sinatzeko baimena ukatzen ahal da egiaztatzen denean aplikatzeko den baremoa aplikatuta emandako puntuazioa zuzena ez dela, etxebizitza babestu bat eskuratzeko betekizunetako baten bat betetzen ez dela edota datuak ezkutatuta direla, deklarazio faltsuak nahiz errealitateaz bestelakoak sinatu direla, ez-betetze hutsa badira ere, bai eta dokumentuak faltsutu direnean ere.

Kontratua sinatzeko baimena ematen denean soilik pasatzen da behin betiko adjudikaziodun izatera.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako Departamentuak ez zuen laukirik gaitu 2023. urteari dagokionik Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenak eskatzeko dokumentuetan, eta, beraz, ezin da esan sustapenari akats batek kalte egin zionik, aitzitik, pertsona batzuek behar ez bezala bete zuten eskaera bidegabeki puntuazio gehiago lortze aldera.

Hain zuzen, eskaera egiteko dokumentu hori berez ez da existitzen, eta inskripzio telematikoa egiten da horren ordez, zeinean eskatzaileak data berariaz sartu behar duen. Jakin ez diren arrazoiengatik eskatzaile batzuek 2023/12/31 data sartu zuten, nahiz eta 2023ko maiatzean edo apirilean egon, akreditatu behar den arren betekizun-

nek betetzen direla inskripzioa egiten den unean eta esleitzeko prozedura hasten den egunean (2023ko ekainaren 1a kasu honetan). Zehazki, Maristen orubeko sustapenetan adjudikaziodun izandakoetatik hiru eskatzailek sartu zuten data hori, eta modu horretan edozelan zegokien puntuazio bat lortu zuten.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## **11-24/PES-00097. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskabidean 2023. urteari dagokion laukia gaitu izanari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko eskabidean 2023. urteari dagokion laukia gaitu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00097). Hona hemen galdera horrek dioena:

– Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenerako eskabideetan 2023. urteari dagokion laukia gaitu zen, nahiz eta ez ez urte horretan halakorik bete behar. Zergatik?

– Zenbat sustapenetan egin da akats hori bera?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako Departamentuak ez zuen laukirik gaitu 2023. urteari dagokionik Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenak eskatzeko dokumentuetan, eta, beraz, ezin da esan sustapenari akats batek kalte egin zionik, aitzitik, pertsona batzuek behar ez bezala bete zuten eskaera bidegabeki puntuazio gehiago lortze aldera.

Hain zuzen, eskaera egiteko dokumentu hori berez ez da existitzen, eta inskripzio telematikoa egiten da horren ordez, zeinean eskatzaileak data berariaz sartu behar duen. Jakin ez diren arrazoiengatik eskatzaile batzuek 2023/12/31 data sartu zuten, nahiz eta 2023ko maiatzean edo apirilean egon, akreditatu behar den arren betekizun-ek betetzen direla inskripzioa egiten den unean eta esleitzeko prozedura hasten den egunean (2023ko ekainaren 1a kasu honetan). Zehazki,



adjudikaziodunen artean hiru eskatzailek sartu zuten data hori.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

---

## **11-24/PES-00098. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (-24-24/PES-00098). Hona hemen galdera horrek dioena:

Nafarroako Gobernuak zer konponbide emanen die Maristen orubeko babes ofizialeko

etxebizitzaren esleipena baliogabetu izanak kaltetutakoei?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako Departamentuak zaindu du, zaintzen du eta zainduko du etxebizitza babestu baten adjudikaziodunek bete egiten dituztela etxebizitza babestua eskuratzeko legez ezarritako betekizunak, eta egiaztatzen ahal dituztela Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena ematean adierazi zituzten inguruabar puntuagarriak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## **11-24/PES-00099. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean egindako akatsaz noiz eta nola jabetu ziren jakitekoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean egindako akatsaz noiz eta nola jabetu ziren jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (-24-24/PES-00099). Hona hemen galdera horrek dioena:

Nafarroako Gobernua noiz eta nola konturatu zen akatsa egin zuela Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak ez zuen akatsik egin Maristen orubeko sustapenak adjudikatzean; aitzitik, indarreko araudia aplikatuta, administrazio errekurtsioa jasotzen ahal duen administrazio ebazpen bidez kontratua sinatzeko baimena ukatu zuten etxebizitza babestua eskuratzeko legez ezarritako betekizunak betetzen ez zituztenei edota Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena ematean adierazitako inguruabar puntuagarriak egiaztatu ezin zituztenei.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

### **11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako proposatutako kide bat izendatzea**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Rafael Lara González jauna izendatzea Nafarroako Parlamentuak proposatutako Nafarroako Kontseiluko kide.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako proposatutako kide bat izendatzea**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Ana Clara Villanueva Latorre andrea izendatzea Nafarroako Parlamentuak proposatutako Nafarroako Kontseiluko kide.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-24/ELC-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako proposatutako kide bat izendatzea**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Eduardo Santos Itoiz jauna izendatzea Nafarroako Parlamentuak proposatutako Nafarroako Kontseiluko kide.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

